



DEBAko UDALA

2016SPLE0008  
8. BILERA: OHIKOA 2016-07-06

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

**Zenbatgarrena:** zortzigarrena

**Eguna:** 2016/07/06

**Hasiera-ordua:** 19:30

**Amaiera-ordua:** 20:10

**Onarpen-eguna:** 2016/07/28

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**

PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA

AIMAR LASA URKIRI

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

UNAI LEKUBE ARANBERRI

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

### **Bertaratzeak eta irteerak**

### **Gora-beherak**



## DEBAko UDALA

### Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/05/26).
2. 2 zenbakidun kreditu aldaketa onartzeko proposamena.
3. Lankidetz hitzarmena sinatzeko proposamena. GFAko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren eta Debako Udalaren artekoa, udal eroldaren dautak egiaztatzeko.
4. Lankidetz hitzarmena sinatzeko proposamena. EAE eta Debako Udalaren artekoa, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.
5. Mozioa: “itsas-lehorreko jabari mugaketa Sasiolan”. Mutriku Natur Taldea.
6. EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salari 919/12-2. prozedura arruntaren jardunbidea amaitzeko helarazitako eskaera onestea. (1 Sektorea -Elizburu, exekuzio unitatea-plan partziala).
7. 919/12-2. prozedura arruntaren jardunbidea amaitzeko sinatutako hitzarmenaren berri ematea. (1 Sektorea -Elizburu, exekuzio unitatea-plan partziala).
8. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
9. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

## Esan-eginak eta erabakiak

### 1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/05/26)

2016ko maiatzaren 26ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla.

### 2.- 2016ko 2. kreditu aldaketa onartzeko proposamena. Kreditu gehigarrien modalitatea.

*Ogasuna, Ondarea eta Kontuetarako batzordearen proposamena.*

#### 4.- 2. ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA

Kredituen aldaketarako 2016ko 2. zenbakidun espedienteari buruz, eta, Tokiko Ogasunak arautzen dituen 39/1988 Legearen 158.2 artikulua eta Udal Araudia betez, Gastuen Aurrekontuan gordetako kopuruak nahikoa ez direnean eta hurrengo ekitaldirarte atzeratu ezin daitezkeen Udaleko ordainketak egiteko krediturik ez dagoenean, esandako aurrekontuak gehitu ahal izango dira edo kredituentzako ezohiko kredituak ematea adostu ahal izango da.

Kontuan izanda Tokiko Ogasunak Arautzen dituen Legearen 158.etik 162.era doazen 4 artikuluetan ezartzen dena eta Erakunde honen egungo beharrak ikusita, aldatu edo sortu behar diren kredituak, erabiliko diren kredituak adierazten diren igoera eta kenketen azterketan zehazten direnak dira.

#### MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS N° 2.-

En relación con el expediente de modificación de créditos nº 2 de 2016 y en cumplimiento del artículo 158.2 de la Ley 39/1988 reguladora de las Haciendas Locales y de la Norma Municipal, cuando sean insuficientes las consignaciones en el Presupuesto de Gastos, cuando no existe crédito para atender el pago de las obligaciones de la Corporación que no pueden demorarse hasta el ejercicio siguiente, pueden suplementarse aquellos o acordar la concesión de créditos extraordinarios para éstas.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en los 4 artículos 158 al 162 de la Ley Reguladora de Haciendas Locales y vistas las necesidades actuales de esta Entidad, los créditos que deberán ser modificados o creados son los que se detallan en el estudio de aumentos y deducciones en el que se indican los créditos a utilizar.

2 KREDITU ALDAKETA 2016		
MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS N° 2		
Kap.	Gastuen egoera	
6	Deba-Mutriku zubiko argitegia	25.000€
6	Debako kanposantuko obrak	18.425€
6	Umeen jolasak	119.994
2	Berdegunetako lorak	32.000
	<b>GUZTIRA</b>	<b>195.419€</b>
Erabilitako baliabideak		
8	Altxortegiko gerakina	195.419€
	<b>GUZTIRA</b>	<b>195.419€</b>



## DEBAko UDALA

### *Txostena*

Alkatearen proposamenean jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketen espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso-osorik finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, alkatearen proposamenean espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako foru arauaren 34.3. artikuluaen arabera, **kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onartzeko eskumena udalbatzari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsoei buruzko tramiteak. Gainera, espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar zaio.**

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa

### *Iritziak eta galde erantzunak*

Aimar Lasa zinegotziak galdetu du kreditu aldaketaren xede diren gaiei buruz.

Umeen jolasen inbertsioari dagokionez aipatu du, Gazteria eta Kirolak batzordean proposatu zutela denon artean erabakiko zutela zein jolas mota jarri eta non jarri.

Horren inguruan Aitor Salegi zinegotziak erantzun dio, gaia Gazteria eta Kirolak batzordean lantzeaz gain Zerbitzuen batzordean ere landu zela eta jolas parkea tokiz aldatzea kostu ekonomiko handia suposatzen zuela, eta ondoriz, momentuz, tokiz ez aldatzea dela asmoa. Jardunbideari dagokionez, argitu du, lehenengo kreditu aldaketa izapidetuko dela eta ondoren kontratazio espedientea.



## DEBAko UDALA

Aimarrek galdetu du berdeguneetako loren, hondartzako muralaren eta egingo diren gainerako muralen inguruan, izan ere, Turismo batzordearen gai zerrendan gaia ez zetorren eta galdetu du herria edertzeko egitasmoaren barnean dagoen proiektua.

Alkateak erantzun dio, lorak hiru plazetan jarri direla eta egingo diren gainerako muralak herriko artista desberdinek egingo dituztela.

### ***Erabakia.***

Ogasuna, Ondarea eta Kontuatarako batzordearen proposamenaren eta idazkariaren txostenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla:

**Lehenengo.-** Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:


### **KREDITU GEHIGARRIAK**

<b>Kapituluak</b>	<b>Izena</b>	<b>Gehikuntzak</b>
2	Berdeguneetako lorak	32.000,00
6	Deba-Mutriku zubiko argitegia	25.000,00
6	Debako kanposantuko obrak	18.425,00
6	Umeen jolasak	119.994,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>195.419,00</b>

### **FINANTZAKETA**

<b>Kapituluak</b>	<b>Izena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
8 (SARRERAK)	Altxortegiko gerakina	195.419,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>195.419,00</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.



## DEBAko UDALA

### **3.- Lankidetza hitzarmena sinatzeko proposamena. GFAko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren eta Debako Udalaren artekoa, udal erroldaren datuak egiaztatzeko.**

#### ***Aurrekariak***

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentura atxikita dagoen Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza da herritarren partaidetza sustatzeko ardura duen organoa eta partaidetza prozesuak egiteko ardura duen organoa, eta 2010eko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauari jarraikiz, funtzio hauek ditu:

- a) Gipuzkoako Lurralde Historikoan herritarren partaidetza eta jabeakuntza sustatzen dituzten politikak planifikatzea eta ezartzea.
- b) Gipuzkoako Foru Aldundiaren herritarren partaidetza programa planifikatzea, zuzentzea, koordinatzea eta ebaluatzea, gainerako departamentuekin lankidetzan.
- c) Partaidetzaren zeharkakotasuna eta herritarren jabeakuntza sustatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardueretan.
- d) Herritarren partaidetza sustatzen duten programak eta ekintzak diseinatzea.
- e) Gainerako euskal herri administrazioekin elkarrizketa eta koordinazio ekintzak burutzea partaidetzari dagokionez.
- f) Partaidetzaren eta jabeakuntzaren alorrean lan egiten duten elkarteekin, fundazioekin, GKEekin eta gizarte mugimenduekin lan egitea.
- g) Lankidetza sustatzea herri administrazioekin eta partaidetzaren eta jabeakuntzaren alorrean lan egiten duten beste erakunde batzuekin, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo.

Partaidetza prozesuetan, ezinbestekoa da Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak kontrastatzea zein den zuzendaritzaren ekimenetan parte hartzen duten pertsonen ohiko egoitza.

Udalaren errolda da udalerrri horretako auzotar guztiak agertzen diren administrazio erregistroa. Datu horiek bertan bizi direla eta ohiko etxebizitza non duten frogatzen dute.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak modu telematikoan egiaztatu ditzake Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren ekimenetan parte hartzen duten pertsonen egoitza udalerriri buruzko datuak.

Errolda egiaztatzeko datua, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak eskatuta, Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen bidez kudeatuko da (IZFE SA).

IZFEk pertsona guztien baimena eskatuko du, zeinen ohiko etxebizitza kontrastatu beharko baitu Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak eskatuta.

Hitzarmenaren xedea da beraz, hainbat baldintza ezartzea, zehazte aldera Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak izaera pertsonaleko datuak nola tratatuko dituen. Datuok Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak egiten dituen partaidetza prozesuetan parte hartuko dutenek Gipuzkoako udalerrri batean dituzten erroldari buruzko datuak dira. Orobat da xede Zuzendaritzak gorde behar duen konfidentziasun markoa zehaztea.



## DEBAko UDALA

### ***Erabakia.***

Hitzarmen proposamenaren berri eduki ondoren Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla:

**Lehenengo.-** GFAko Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren eta Debako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, udal erroldaren datuak egiaztatzeko.

**Bigarren.-** Alkateari ahalmena ematea Udalbatzarraren izenean lankidetzaren hitzarmena sinatzeko.

### **4.- Lankidetzaren hitzarmena sinatzeko proposamena. EAE eta Debako Udalaren artekoa, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.**

### ***Aurrekariak***

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak helburu bera dute: Gipuzkoako toki administrazioetan bitarteko elektronikoaren erabilera sustatzea.

Xede horrekin bi erakundeek Gipuzkoako udalei proposatu diete Eusko Jaurlaritzaren eta udalaren arteko elkarrengatarteko hitzarmena sinatzea, datuak trukatzeko eta, horrela, paperezko ziurtagirien erabilera alde batera uzteko.

Eusko Jaurlaritzak eta udalek sinatuko duten hitzarmena aldi baterako da, 2017. urterako aurreikusten baita desberdina izango den esparru juridikoa onartzea, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean indarrean dagoen hitzarmenean, eta udalaren eta Foru Aldundiaren artean etorkizunean sinatuko den hitzarmen zabal batean oinarrituta.

### ***Erabakia.***

Hitzarmen proposamenaren berri eduki ondoren Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla:

**Lehenengo.-** EAE eta Debako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.



## DEBAko UDALA

**Bigarren.-** Alkateari ahalmena ematea Udalbatzarraren izenean lankidetzaz hitzarmena sinatzeko.

### **5.- Mozioa: “itsas-lehorreko jabari mugaketa Sasiolan”. Mutriku Natur Taldea.**

Alkateak mozioaren puntuak irakurri egin ditu eta mozioari buruzko azalpenak eman ditu.

#### ***Iritziak eta galde erantzunak***

Aimar Lasa zinegotziak esan du beraiek mozioa babestuko dutela eta galdetu du Praileaitz babesteko xedearekin joan den urtean Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren inguruan.

Alkateak erantzun dio, gaiarekin jarraitzen dutela baina lana amaitzeke dagoela.

#### ***Erabakia.***

Mozioaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez onartu du, legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla:

**Lehenengo.-** Debako Udala, Natur eta Kultur ondare publikoa babestu nahian 2001en onartu zen mugaketa-prozeduraren alde agertzen da (Gipuzkoako DL-47 zenbakia duena Sasiolan). Posizionamendu hau Kostaldeetako Zuzendaritza Nagusiari eta Gipuzkoako Kostaldeetako Zerbitzuari helaraziko dizkie.

**Bigarren.-** Eremu arkeologiko eta paisajistikoaren inguruko arriskuaz jabeturik, babes zortasuna 100mtik 200mtara pasatzea eskatuko dio Kostaldeetako Zuzendaritza Nagusiari.

**Hirugarren.-** Debako Udalak erabaki hau Udaletxeko iragarki oholean eskegiko du eta Mutriku Natur Taldeari jakinaraziko dio, talde horrek egoki irizten duten erakunde, elkarte zein herritar interesdunei jakinarazteko edo zabaltzeko.

### **6.- EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salari 919/12-2. prozedura arruntaren jardunbidea amaitzeko helarazitako eskaera onestea. (1 Sektorea -Elizburu, exekuzio unitatea-plan partziala).**





## DEBAko UDALA

Idazkariak gairen berri eman du.

### **Erabakia.**

Proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez onartu du legezko hamahiru kideetatik hamabi bilkuran direla:

**Lehenengo.-** EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salari 919/12-2. prozedura arruntaren jardunbidea amaitzeko helarazitako eskaera onestea. (1 Sektorea -Elizburu, exekuzio unitatea-plan partziala).

### **7.- 919/12-2. prozedura arruntaren jardunbidea amaitzeko sinatutako hitzarmenaren berri ematea. (1 Sektorea -Elizburu, exekuzio unitatea-plan partziala).**

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

### **8.-Alkatetza Dekretuen berri ematea.**

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

36	2016/05/26	Santa Maria elizako klaustroko 2016ko erakusketa programaren onarpena eta gastua baimentzea, 4.000€tan (BEZ barne)	
37	2016/05/26	Agirre Jauregiko altzarien tratamendua eta mantentze lanen onarpena eta gastua baimentzea, 4.174,50€ tan (BEZ barne)	
38	2016/05/27	OTA zaindariaren kontratazioa: Maiatzaren 28 eta 29	
39	2016/05/30	Eguneko Zentroko langile baten baja ordezkatzeko kontratazioa: Maiatzaren 30etik ekainaren 5era	
40	2016/05/30	Atzeritarren baja eroldan	
41	2016/06/01	Turismo bulegorako langilearen kontratazioa: Ekainaren 1etik irailaren 30era	
42	2016/06/01	Bi OTA zaindarien kontratazioa: Ekainaren 1etik lan poltsa eratu arte	
43	2016/06/01	Udaltzaingoaren kontratazioa: Ekainaren 1etik lan poltsa eratu arte	
44	2016/06/06	Eguneko Zentroko langile baten baja ordezkatzeko kontratazioa: Ekainaren 6tik aurrera	
45	2016/06/06	Liburutegiko langilearen kontratazioa: Ekainaren 6tik 10era	
46	2016/06/13	Tabernei bide publikoan terraza eta mahai-tokiak jartzeko baimenak	
47	2016/06/20	Astillero eta Osio kaleetako jasotze topografikoa egiteko kontratuaren esleipena: 790€etan (BEZ kanpo)	2016SCOU0004
48	2016/06/20	2015eko auditoretza egiteko kontratuaren esleipena: 9.680€etan (BEZ barne)	2016SCOU0005
49	2016/06/20	Bitarteko funtzionarioa izendatzea, administrari laguntzaile gisa, ekainaren 20tik aurrera sei hilabeteetarako.	



## DEBAko UDALA

50	2016/06/20	Bitarteko funtzionarioa izendatzea, udaltzain gisa, ekainaren 20tik aurrera, lan poltsa eratu arte.	
51	2016/06/20	Bitarteko funtzionarioa izendatzea, udaltzain gisa, ekainaren 20tik aurrera, lan poltsa eratu arte.	
52	2016/06/20	Bitarteko funtzionarioa izendatzea, udaltzain gisa, ekainaren 20tik aurrera, lan poltsa eratu arte.	
53	2016/06/27	Eguneko Zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko kontratazioa: Ekainaren 27tik uztailearen 22ra	
54	2016/06/27	Bi OTA zaindariaren kontratazioa: Ekainaren 23tik irailaren 23ra	
55	2016/06/27	Kontu-hartzailetza eta Idazkaritzako Administrari plaza hornitzeko, onartuen eta baztertuen zerrenda onartzea eta epai-mahaia izendatzea.	2015SOP00001

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

### 9.- Eskariak eta galderak.

Aimar Lasa zinegotziak galdetu du txakurren gaiaren inguruan.

Alkateak esan dio, herria txakur-kakaz josita dagoela ikusita, erabaki dutela 2006ko udal araudiaz baliatzea horri aurre egiteko. Udalean bederatzi bat pertsonen sinatutako porposamen-idazki bat jaso da. Asmoa da, zonakatzea eta akordiotara heltzea eta horretarako araudia aldatu behar baldin bada aldatzea. Datorren astean batzar irekia nahi dela egitea esan du.

Aimar Lasa zinegotziak esan du, jakin dutela Praileaitzi buruzko liburu bat argitaratu nahi dutela pertsona batzuek eta horretarako finantzaketa behar dutela.


Alkateak erantzun dio, liburu tekniko delako eta akaso Gipuakoako Foru Aldundiaren eskutik dirulaguntza eskuratzea posible izan daitekeela.

Eli Urteaga zinegotziak jakinarazi du auzokonpost guneen inguruak oso zikin daudela eta aspaldi ez direla garbitzen. Garbiketa lan horren arduna norena den galdetu du.

Cristobal del Corte zinegotziak erantzun dio garbiketa hori Mankomunitateari dagokiola, ez zeukala gaiaren berri eta bihar bertan jakinaraziko diola Mankomunitateari.

Unai Lekube zinegotziak azaldu du, aurreko Herritarren Partaidetza eta Ekonomiaren Sustapenerako batzorde-bilerarik ez dela egin eta horren arrazoiak azaldu ditu. Baina bilerarik ez eginda ere azaldu du herritarren partaidetza arloan zer egin den eta helburu nagusiak zeintzuk diren zerrendatu ditu. Ekonomia sustapenari dagokionez, beste horrenbeste egin du.

Aimar Lasa zinegotziak galdetu dio partehartzeari buruzko ordenantza noizko aurreikusten den eta Unai erantzun dio urtea amaitu aurretik egongo dela.



## DEBAko UDALA

Azkenik, Aimar Lasa zinegotziak Kresala Hotelaren inguruan galdetu du, zurrumurruek entzun baititu.

Alkateak erantzun dio itxi egingo dela entzun dela, baina zurrumurruek besterik ez direla.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuek amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2016ko uztailaren 6an

**IDAZKARIA**



